

# DEIALDIA

**1.HELBURUA:** Deialdi honen xedea da **UDALBIDE Elkarlan Elkartea** eta edozein erakunde publiko zein pribaturen arteko hitzarmen sinaduraren baldintzak, **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** Egitasmo Nagusian adierazten diren helburuak aurrera eraman ahal izateko.

**2.ONURADUNAK:** Indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta dagokion erroldan inskribaturiko pertsona fisikoa zein juridikoa.

**3.BALDINTZAK:** **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** ekarpenaren kopurua bateragarria da beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, beti ere gain finantzaketarik gertatzen ez bada. Hitzartuta izanen diren ekintza orotan, **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** aipamena agertuko da, adostuta egonen den modura.

**4.PROZEDURA:**Hitzarmenak, eta atxikitutako dirulaguntzak, ondoko irizpideen arabera esleituko dira:

- **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** Proiektu Markoren helburuekiko lotura.
- Jarduerak dagokion lur-eremuan izan dezakeen eragina.
- Jardueraren berezitasuna.
- Eskatzailearen esperientzia eta bermea.
- Autofinantzaketa maila.

**5.EPEAK.** Eskabideak aurkezteko epea **otsailaren 28an** bukatuko da. Hala ere, **UDALBIDE Elkarlan Elkartek**, bere interes eta beharren arabera, epez kanpoko hitzarmen-sinadura proposa dezake. Eskaeren aurkezpenak ez du **UDALBIDE Elkarlan Elkartea** behartzen edozein hitzarmen mota sinatzera.

Hitzarmenaren sinadura burutuko da baldin eta sinatzaileak bat etortzen dira Deialdi honen 4.atalean ezartzen diren irizpideekin. Honez gain, **UDALBIDE Elkarlan Elkarleak** ez du inolaz ere justifikatu behar edozein eskaeren bazterketa.

**6.ORDAINKETA. UDALBIDE Elkarlan Elkarlearen** diru-ekarpenaren ordainketa zati bakarrean eginen da:

**UDALBIDE Elkarlan Elkarleak** laguntza zuritzeko dokumentazio osoa jasoko duenean. Beti ere, **urtarrilaren 31a** baino lehen. Diru ekarpenaren gastuak zuritzeko bidaltzen diren agiriak aztertu ondoren ordainketa gutxitu edo bertan behera utzi beharra gertatuz gero, **UDALBIDE Elkarlan Elkarleak** dagokion elkarteari bere erabakiaren berri emango dio.

**7.ORDAINKETA. UDALBIDE Elkarlan Elkarlearen diru-ekarpenen justifikazioa: UDALBIDE Elkarlan Elkarlearekiko** hitzarmenak sinatu dituzten erakunde eta elkarteek **urtarrilaren 31a** baino lehenago bidali behar dio Udalbideri honako informazio hau:

- Dagozkion ziurtagiriak, Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan eguneratuak daudela egiaztatzen dituztenak.
- Txosten bat non proiektu eta xedeen inguruan antolatutako ekintzak eta haien emaitzak adieraziko diren.
- Txosten ekonomiko zehatza, jasotako dirulaguntzari eman zaion erabilerari buruzkoa.
- Eskaeran aurkeztutako aurrekontua justifikatzen dituzten fakturen kopiak. **Udalbide Elkarlan Elkarleak** edozein momentutan jatorrizkoak eskatzen ahal dituelarik.
- Ziurtagiria: Dirulaguntza hitzartutako proiektu(et)an gastatua dagoela azalduz.
- Hala badagokio, sortutako materialen bi kopia.